

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko martxoaren 10a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Maria Jose Sagues • «Teatroa bizimodu txarreko pertsonak egiten dutelako ustea errotik moztu behar da».

Baztan • Gizonezko eta emakumezkoek kinto bestak ospatuko dituzte.

Xabierraldia Lisboan



• EGUNKARIA

Martxoan Xabierera erromesaldia egiteko ohitura dago nafar askoren artean; debozioagatik batzuk eta ohitura edo kirola egiteagatik besteak, urtero jendetsua izaten da ospakizuna. Hala ere bertara joan diren gehienek ez dute ziurrenik Xabierko Frantziskoren historia ezagutzen. Bada, San Frantzisko mundu osoan izan zen kristau dotrina zabaltzen, eta Lisboan ere bere bizitzaren aztarna ugari utzi zituen. Hala, portugaldar askok San Frantzisko hangoa zela uste du.



Baztan ●

Kinto besten garaia

21 urterekin hasten dira gazteak kinto bestak ospatzen



Baztango kinto talde baten argazkia ● EGUNKARIA

Ez dago data jakinik kinto bestak noiz ospatzen diren esateko; dena den, askok martxoa eta apirila aukeratzen dituzte elkartzeko. Jatorrian, soldadutza egiten zuten gizonen bilkura zen kinto besta.

Hiztegiaren arabera, kintoa prestakuntza militarra jasotzeko soldadutza joaten den gizona da. Hitza-zen zentzua, ordea, aldatuz joan da, eta gaur egun urte berean jaiotako guztiei horre-

la izendatzen zaie. Arestian gizonak bakarrik ospatzen zizuten kinto bestak, haiek joaten baitziren soldadutza. Gaur egun gauzak nahiko aldatu dira: izan ere, gazteenak neskak eta mutilak elkarrekin besta ospatzen hasi dira. Urte berean jaiotakoak egiten zaie deialdia, eta gehienetan hainbat herritan izaten da bazkaria. Oinarrian kinto besta gehienak antzekoak dira: eguna mezarekin hasten dute hildako kintoak gogoratzeke, eta ondotik bazkaria egiten dute. Bazkariko menua antolatzaileek erabakitzen dute gehienetan; gazteak bada, gauza merkeagoak eskatzen dituzte. Bazkalondoa, dantzaldia izaten da, akordeolariarekin. Ondotik, poteoa izaten da Elizondon, eta inda-

rrak amaitzen direnean bukatzen da besta.

Zaharrenen artean bada urtean bi besta ospatzen dutenak: bata, soldadutza joandako lagunekin, eta bestea, gerra zibilean ezagutu zituztenekin. Adineko taldeek ez dituzte onartzen emakumeak, emakumeek ez dutelako soldadutzarik egin. Nola edo hala ulergarria izan daiteke adinari begiratu, baina badira, gazteagoak izanagatik, 1954an jaiotakoak adibidez, emakumeak onartzen ez dituztenak.

1944ko kintoak, adibidez, duela gutxi elkartzen hasi ziren, eta, gainera, emakumeek antolatu zutelako. Gehienetan, deialdia eskutitzen bidez egiten da, batez ere adinekoen artean, eta gazteagoek karte-

lak jartzen dituzte ostatueta zenbait egun lehenago. Azken horientzat oso garestia izango litzateke urtero denei eskutitzak bidaltzea, gehienak ehundik gora kinto direlako. Kinto besten berezitasunen artean azpimarratzekoa da ez dituztela Baztango emakume eta gizonak bakarrik elkartzen, baizik eta besta honetara Zugarramurdi eta Urdazubikoak ere badatozela.

Kinto bestak urte berean jaiotakoak elkar ezagutu eta harremanak estutzeko aitzakia dira, baita besta egiteko egun aproposa ere. Inguru honetatik kanpo dauden herritar asko dator horrelako egunean lagunekin giro ederran egoteko.

→ Raket Goñi

Iruñea ●

Inaute kalejira berezia alde zaharrea

IRUÑEKO AMAIUR DANTZA taldeak inaute kalejira berezia egingo du bihar. Inauteriak Iruñetik joanak diren arren, Amaiur dantza taldeak Euskal Herri osoko talde eta kolektiboak biltzeko aukera aprobetxatu nahi izan du, eta, horregatik, bihar egingen du bere kalejira.

Amaiur dantza taldeko kideen arabera, "inauteriak nork bere herri zein auzoan ospatzeko dira"; haiek hainbat talderekin egin nahi izan dute elkarretaratzea, eta horregatik egingen dute bihar inauteri ospakizuna, kalejiran.

Hala, Amaiur dantza taldeko dantzariekin batera, Arbona, Uhartea, Atarrabia, Donibane auzoa, Barañain, Errenteria, Gasteiz eta Ibarako musikari eta dantzariak izanen dira bihar arratsaldean; joaldun, fanfarre, trikitalari eta dultzaineroek jarriko dute dantza erritmoa.

Antolatzaileek euskal kultura lantzen duten taldeen topaketen aberasgarritasuna nabarmendu dute. Hirugarren aldiz egingen dute aurten Arbonako Primadera taldeko kideekin trukea, «eta berriro ere talde baten ezagupenak bestearentzako baliagarriak izan daitezten hartuko ditugu».

Deialdia, bihar izanen da, arratsaldeko 17:30etan, Errekoletak plazan. Talde horiekin batera nahi duen guztiari parte hartzeko deia egin die Amaiur dantza taldeak.

→ Miren Iriarte

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ezagutzen ez dudan herrialde baten ingurua

Musika erritmikoa jarri dut, gerria mugitzen dizuten horietakoa. Eta amets baten modura ikusi ditut bere mendiak, haren berdetasuna, bere txuri eta beltzak. Baita guztiaren gainean aurpegi irribarretsu bat ere, eta esku bat nire alderantz luzaturik. Dantza dezagun esaten didan ahotsa. Horrela irudikatzen dut ezagutzen ez dudan herrialde hori. Musika airean beti, dantzan hasteko prest, erritmoa gorputzean sarturik, harekin jaioa, nahiz eta... nahiz eta errealtate gordina bizi.

Lur horietan bizi-irauten dutenek badakite mementoa dastatzen. Ez dute adina bere etxeko ataririk pasatzen uzten. Bertan heriotza merkea da eta

bizitza erraz hausten zaie gazteei. Beraz ez da plazerra geroko lagatzerik.

Biharko eguna nolakoa etorriko den, baita etorriko den ere zalantzan dagoenean zorrotzen dira gizakien perzepzioak, areagotzen da barne-oinazeari eusteko adorea eta norbaiten mugetaraino eramandako minek ausardia sortzen dute eta borrokarako grina.

Ezagutzen ez dudan herrialde horrek arestian bi giza-irudi sortu dizkit, burutik uxatu ezinak. Nola ahaztu emakume beltzaren dotorezia, handitasuna, esku batean harturiko kandelaz iluntasuna urratzen, gona txuri luzea, azpiko muturretik beste eskuz helduta, batera eta bestera, kulunkan, doinuaren errit-

moan mugitzen eta gizona haren magalera hurbildu nahian, aurrez aurre, apala, oinutsik, oso gertutik arnasak... Emakumezkoaren nagusitasuna ez da hain nabarmen sekula erakutsi.

Nola ahaztu herrialde berak emandako mutikoa- ren argitasuna, bizitzaren aurrean erakusten duen tinkotasuna eta trebezia. Argi helburuak, zalantzarik ez baliabideetan... Tenerifeko zurrunbilan dabil egunotan urrunean utzitako bere herriaren pareko berotasunean eta hantxe bezalatsu dantzan. Memento lana gerokoaren zerbitzuan jartzen.

Biekin dudan oroimenagatik eta etorkizunari begira biekin dudan itxaropenagatik eskertzen dizut herrialde oraindik ezagutzen ez dudana hori.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

**Begiak
zabaldurik**

Takonerako banku batean eseri eta begiak ixten ditut itsuek sentitzendutena nik ere sentitzeko. Autoen burrunbak. Txorien txilioak. Pasatzen den jendearen ahotsak. San Lorentzoko semaforoaren hotsa. Azken hori, preskeski itsuentzat prestatuta dagoena, pi-po, pi-po, pi-po dabil. Oinezkoak errepidea pasatzen irudikatzen ditut. Gero eta erritmo biziagoan doa ordea: Pipopi-popipo. Eta bukatzeko: piiiiiiliiiiii egiten du. Orduan ohartzen naiz kotxeen hotsak gora egiten duela. Klara, semaforoa berde jarri zaie eta.

Logikoa. Egunero entzuten dudana hots horretaz orain jabetzen naiz. Segi dezagun. Nire aurrean Turkiako Tortolaren u-u-u xeblea entzuten dut.

Arra da. Emeei deitzen ari da. Udaberriaren atarian gaude. Tortola hauek Turkiatik Europa gutzira zabaltzen ari dira. Iruñean izan genituen aurrekoak ornitologo batek ekarritakoak izan ziren. Orain bertakoak dira eta batzuek bere kasa etorritakoak badirela ere uste dute. Nik horretaz ez dakit gehiago.

Atzetik txolarreak ditut, beti bezala iskanbilatsuak. Gurasoei janari eske ibiltzen diren umeen txilioak oraindik ere ez dira agertzen. Geroreago etorriko dira. Atzealdetik ere zozo baten kanta ailegatzen zait. Zozoak mila modutan abesten du. Beste txorien txilioak imitatzeko gai da. Baina orain zozoarena egiten ari da. Bere burua imitatzen agian. Ezin dezaket esan txortan egin nahi ote duen. Zozoek beti kantatzen ibiltzen baitira.

Hala iruditzen zait niri, behintzat. Txori hauek lurrean egiten dituzte habiak. Iaz Mariblacaren atzealdean egin zuen batek. Bere etxea Miken aurrean babesten ikusi nuen. Alferrik ordea: hurbildu nintzenerako bere arrautzak apurtutak zeuden. Baina... egon! Gauza xeble bat gertatzen ari da. Itsuen moduan luzaz ibiliz gero gertatzen den gauza bitxi batez ari naiz: aurretik zaratak dira atentzioa ematen dizutenak, baina gero


ohartzen zara zure gorputzak sentitu egiten duela, eta nola!, eguzkiaren beroa. Banku gainean duzun ipurdiaren presioa. Haizearen mugimendua eskue-tan. Saiatzen naiz usaintzen ari naizena dastatzen. Motorren usaina dago, orduak beharko nituzke beste usainen arrastoak harrapatzeko. Nire aurretik igarotzen den jendea ez da gauza hauetaz jabetzen. Normalean ni jabetzen ez naizen modu berberetan. Begiak zabalduegiak ditugu agian. Bihotza erreta. ●

Lizarra ●

**Irantzu
ibaiaren magaletik**

2,2 kilometroko ibilbide interpretatiboa ireki berri dute inguruan

Irantzuko monasterioan bertan hasten da bidezidorra, eta ibaiaren urbazterretik zehar iragaten da ibilbide interpretatiboa. Joan-etorrian paraje honetako historia, flora eta fauna ezagutu daitezke.



Lizarraldeko (Irantzu ibaiko kasu) landaredia eta fauna aberatsa ezagutzen ahal da aurrerantzean.
● KRISTINA BERASAIN

LIZARRALDEKO PARTZUER-go Turistikoak Irantzu ibaiaren antzinako arroila bisitatzeko moduan jarri berri du bidezidorra. Horrela, Irantzu ibaiaren magaletik igarotzen den ibilbidean, lau argibide taula eta hamabi mugarri ipini dituzte, ibiltariari zenbait datu argi eta baliagarri eskaintzeko asmoz. Aurreneko taula bisitariari ongi-etorri egiten zaio. Ibilbidearen mapa bat ere ageri da. Halaber, Irantzuko monasterioaren inguruko historia kontatzen da.

Maria Jose Fernandez Lizarraldeko Partzuergo Turistikoko zuzendariaren hitzetan proiektu hau aitzindaria da

Nafarroan; izan ere, joan-etorrian natur baliabide zein baliabendu turistikoek bat egiten dute. «Esaterako, Irantzuko monasterioak, historia apartekoa izateaz gain, bertan lo eta jateko aukera eskaintzen du. Kontrastez beteriko ingurunea izanik, animalia eta flora ugari bizi dira bertan», esan digu.

Ibilbideak 4,4 kilometro ditu. Joan-etorria egiteko ordu-bete beharrezkoa dela diote, eta zailtasunik gabeko bidea dela ere zehazten da aurrene-

ko taulan. Bigarren taulan, ibaiaren arroilaren historia geologikoa ageri da: Bertatik ubidea bete-betean ikus daiteke. Hirugarren eta laugarren tauletan floraren eta faunaren inguruko datuak eskaintzen dira. Bi klima ezberdin izaki, alderdi honetan mediterranearen klimaren zumelak eta kijareak aurki daitezke; hala nola, basurdeak zein arranoak.

Atlantiar tenperaturak direla eta, parajearen pinudiak, pagadiak eta hariztiak ere

sortzen dira eta, bertan ezkutatua, urtxintzak eta orkatzak.

Azkenik, ibilbidean hamabi mugarri ipini dira. Bertan, hainbat gai monotematiko zehazten dira: zumelak, parajearen erabilerak, intxaurrendoa, horniketeta... Ibilbidearen eskuorriak eta gidak ere argitaratu dira, euskaraz, gaztelaniaz, ingeleraz eta frantsesez. Horiek Irantzuko monasterioan bertan aurki daitezke.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Oztibartarrak Argentinan

Oztibartarrek Argentinara egindako bidaiaren lekukotasuna bildu du azken asteko **Herriak**, Gaxuxa Etxeleten eskutik: «Zenbait astez segidan J. P. Curutchet arizan zauku konda eta konda nola egin duen Ameriketako itzulia. Huna egun, joanden asteen hitzeman bezala, bidaiaria hori egin duten oztibartarren lekukotasuna», azaltzen du **Herriak**. Ondokoak dira Etxeleten bildutako hitzak: «Gure kusiak bizi dira Barrio herrian, 2.000 arimako herri bat, Buenos Airesetik 140 kilometretan. Horrat hel eta sekulako ongi etorri ederra eta hunkigarria egin dauku-

te, gu ginen etxeak izena du preseski Ongi Etorri. Hemen nahi dut azpimarratu gure errezebitzaile Amondarain familia, urtero hemendik joaiten diren erakasle multxo baten errezebitzaile ere dela».

«Familiako menbroen ezagutzak egin ditugu, emeki emeki, xoratuak ginen hoinbertze kusiren ezagutzaren egitea, biziki arrangura dira nola bizi giren, hoin eremu ttipietan. Euskal Herria nun den badakite bainan gero... Zenbait irri, solas eta kantu, memento goxo batzu pasatu ditugu. Hor senditu dugu Euskaldunek han

ere zer herri mina bizitzen duten... Han ginelarik gertatu da Barrioko besta. Besta hori deitua da Fiesta de la Carette, hori lehengo orga handi bat 'Europatik eramana omen' bi metra gorako errota ferratuekin oihal batez estalia».

«Argazki ainitz egin dugu, hitzeman daukute zenbaitek bederen jinen direla Euskal Herrirat, beren arbasoen lurrerat, guk ere gomita suharrak egin ondoan! Gaualdia giro onean iraganik, ber denboran bihotzak doi bat tinkatuak eta nigarrez begiak argiturik, elgar utzi dugu».

Xabiererako erromesaldiak santuak Nafarroan duen onarpena erakusten dute; urtero egiten dira. Baina debozio handia izan arren, oso gutxi dakite santua mundu osoan ibili zela, eta are gutxiagok Lisboatik bertatik hainbat bidaiak hasi eta bertan aztarna ugari utzi zituela ere.

GEZURRA BADIRUDI ERE, NAFARROAN bat baino gehiago agian zalan-tzan geldituko da. Lisboan San Frantzisko Xabierkoari buruz jende arruntari galdetzen badiot:

—San Frantzisko Xabierkoa nongoa zen? Ez dakit oso ongi, baina santu portugaldarra da, noski — erantzun du auzoko dendariak.

—Nongoa izan behar du, bada? Hemendik bertatik atera baitzen gure kolonietan ebanjelizatzerak, eta milaka lagun bataiatu zituen bere eskuz — ziurtatu du San Roke eliza ondoan dagoen gizon batek.

Eta ez dira bakarrak; Nafarroaren patroiaz dakigun historia zalantzan jartzen digute Portugalen, Xabierko santuak uste dugun baina sustrai gehiago dituela eta.

Frantzisko Azpilikueta Jatsukoa Nafarroako Xabier gazteluan jaio zen, 1506an. Ikaragarriko lana egin zuen kristautasuna munduan zehar zabaltzen XVI. mendean, Indian eta Japonian batez ere. Parisera Letrak ikastera joan zen, hogei urterekin; Filosofia eta Humanitateak ikasi ondoren, Aristotelesi buruzko eskolak ematen ari zen Ignazio Loiolakorekin elkartu zenean, eta handik gutxira Jesusen Konpainia sortzea erabaki zuten.

Hainbat eta hainbat nafar ibiltzen dira toki berberetan Lisboan bisitatzean: Chiadotik Barrio Altora gora eta behera. San Pedro de Alcantara begiratokian denak gelditzen dira, handik Sao Jorge gazteluari, Rossiori eta Tejo ibaiari so.

Erromerian ibiliko balira bezala ikusten dira turistak Barrio Altoko karraketan egunez, eta Atalaia, Barroca edo Diario de Noticias kaleetako tabernetan gauzez, fadoak, jantoki onen bat edo martxa bilatzen, ibilbide horiek famatuak baitira.

Gutxi batzuek dakite San Frantzisko Xabierkoaren itzala bertan dagoela, San Pedro de Alcantara ondoko San Roque eliza barruan. Lisboako Jesuiten gunea den honetan santuaren hezur bat dago erlikitegi batean gordeta (adituek ez dakite zehazki zer den: bataiatzeko eskuko behatzarena, kilometroak ibiltzeko oinetakoa...).

San Frantzisko Xabierkoa, portugaldarren santua



Nafarroan bezala, Portugalen ere satuarenganako debozio handia dago



«San Frantzisko Xabierkoa 1540an heldu zen Lisboara. Jesusen Konpainia sortu berriko ordezkari gisa, hemengo Joao III.a erregearekin hitz egitera, baina garai hartan eliza hau ermita txiki bat besterik ez zen», azaltzen du Ana Maria Farinhak, San Roke Museoeko teknikariak.

Pobrezia, kastitate eta abarreko botuak ordurako eginak zituen Frantziskok, eta Lisboan pasatu zuen denboran, Baixako ospitalean gaixoak laguntzen zituen. «San Roke ermitara etortzen zen predikatzerak, eta hainbeste gustatu zitzaion tokia, erregeari eskatu zion Jesuiten eliza-xedea egiteko», San Rokeko Hermandad izena eta kapera gordetzeko baldintza jarrita.

Errenazimentuko elizarik ederrenetarikoa bat da gaur egun ikus daitekeen orduko negozioen emaitza: «Kontrarreforma garaian, San Frantzisko Xabierkoarekin eta jesuitekin eliza modernoko ideiak Portugalen sartzen dira lehendabiziko aldiz», dio Ana Mariak.

Urte bakarra pasatu zuen San Frantziskok Lisboan, eta konpainia ongi finkatu hemene eta Portugalgo Inperio ordurako zabala ebanjelizatzeke agindua eta baimena eman zion erregeak nafarrari.

San Roke elizako aldare nagusian, jesuiten santu nagusiak daude. Baina Nafarroako patroiak badu bere toki propioa, albotan dagoen kapera batean: Frantziskoren XVII. mendeko egurrezko taila eder bat, eta horretan garai berbereko margo bi.

Frantziskoren bizitza XVII. mendeko komiki batean

Frantzisko Xabierkoari buruzko gauzarik bitxiena San Rokeko sakristian dago, horretan Santuaren ibilbide osoa ikus baitaiteke. Boli eta jakaranda egurrezko armairuetan sarturik, 1619. urteko hogei margo daude, nafarraren mirakulu eta bidaiak azalduz. Ana Maria Farinhak harro erakusten du bitxi hori: «Ikaragarriko balioa dute margo hauek, elizan dauden beste guztiak baino gehiago».


Portugalgo soldaduak bedekapena

San Roke, Lisboan, San Frantzisko Xabierkoaren egotzaren aztarna koadro anitz baten bidez. EGURRIA

Ana Maria Farinha:

«San Frantzisko Xabierkoaren Roke ermitara etortzen zen predikatzerak, eta hainbeste gustatu zitzaion, non erregeari eskatu baitzion Jesuiten eliza-xedea egiteko»

Frantzisko Xabierkoaren bidaiak



Nafarroako kateak Lisboako eliza batean

LISBOAKO SAN ROKE ELIZAN, SAN FRANTZISKO XABIERREN EGONLEKUAN, NAFARROAKO ARMARRIA IKUS daiteke argi eta garbi. «Iruñeko eraso» izeneko koadro handi batean, Loiolako San Inazio 1521. urtean zauritu zuten episodioa dago; Nafarroako hiriburuko harresiak, bolboraren kea eta garaiko armadurak, zaldiak eta banderak, horien artean kolore gorria eta Navas de Tolosako kateak argi eta garbi ikusten direlarik.

Bere kaperatik, San Frantziskoren irudiak oso ongi ikus daitezke. Guda hartan, Agramondarrek Iruñeari eraso zioten hiria berreskuratu nahian, garai hartan gaztelarren eskuetan baitzegoen. Jatsuko Frantziskoren anaia, agramontarra bera, hantxe zegoen Loiolako Ignazioren Armadaren aurka gogor borrokatzen, handik gutxira Amairuko guern egongo zen bezala, beste zaldunekin gaztelua gordetzen. Sakristian dagoen antzera, elizako lau hormetan beste margo sail bat dago; Domingos D'Acunha *cabrinha* izeneko XVII. mendiko margolariak eginak dira, eta Loiolako santuaren bizitza kontatzen dute. *Iruñeko eraso* elizako koroan dago, eta lurrairen koloreekin dardaratu nahi duten Nafarroako erromesek nahita igo behar dute eskaileraz gora, gertutik eta ongi miresteko.

Elizatik atera baino lehen, San Frantzisko Xabierkoaren hezur sandua ikusi nahi bada, aldarearen ondoan dauden erlikarioetara gerturatu behar da. Batak, ezkerakoak, Gizon Martiriaren erlikiak ditu; esku eta beso zatitxoak, buruhezurak, ileak... denetarik, eta Kristoren koroako arantza bat da bitxirik preziatuena. Nafarroako santuarena beste aldean dago, eskuineko aldarean. Emakume Martiriaren, urrezko kutxatxo ditziratsua batean.

zen. Travancar Erresumara, perla arrantza-leen Pescaria kostaldera, eta, handik, oraingo Indonesian sartu zen, Malacatik (Singapuritik gertu), Molucas uharteetara.

Historiak kontatzen duenez, hainbeste lagun konbertitu eta bataiatu ondoren, besoa nekatzen zitzaion eta ezin zuen kasik hitz egin «hainbeste aldiz kredo eta manamenduak haien hizkuntzetan esan ondoren». Gainera, Nafarroako patroia, euskalduna izateaz gain, tokiko hitz-kuntzetan saiatzen zen hitz egiten eta predikatzen; horretarako itzultzaile bat bilatzen zuen helzten zen lehendabiziko unetik, eta «horrela osatzen zuen kristau-ikasbide erraz bat, eta haurrek eta helduek aho batez abesten zuten».

1549. urtean, Jesusen Konpainiako bederatzigar egotza martxan zituen jadanik India eta Indonesia inguruan. Java, Borneo eta Moluca uharteetan egon ondoren, beste lurralde batera joateko garaia zela uste zuen, eta urte berean lehorreratu zen Japonian. Han bi urte inguru pasatu ondoren, Goara bueltatu zen, Txinan sartzeko espedizio be-

rezi bat prestatzeko. Garai hartan atzerritarrek debekatua zuten Txinan sartzea eta, zenbait aldiz saiatu ondoren, azkenean abiatu zen erresuma erraldoi aldera. Bidaian, 1552an, Cantondik gertu dagoen uharte batean gaixotu zen, eta hil zen, helmugara ailegatu baino lehen. Goako San Pablo elizara eraman zuten haren gorpua, eta han dago, nahiz eta hilatorra moduan erabili zuten mantua —zeinak Txinako setaz eta eskuz margotutako lore marrazkiak zituen— orain Lisboako San Roke Museoan izan.

«Argi dago oso gizon berezia zela San Frantzisko, eta bere garaian oso garrantzitsua. Orienten pasatu zituen hamar urteek Oriente bera aldatu zuten», dio Ana Maria Farinhak. «Beldurrik gabeko gizona izan zen; garaian inork egiten ez zituen bidaiak egin zituen, baldintza kaxkarretan gainera. Hango jendeak kasu egiten eta horrela lortu zuen milaka lagun ebanjelizatzea, eskolak irekitzea, eta abar».

→ Pilar Yoldi

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Beste zapatarari bertsoegile bi (II)

Pasa den astean zapatarari bertsoegile famatu baten inguruan aritu ginen, Ibarrart bertsolariak hain zuzen; gaur, ordea, beste bi zapatarari bertsoegile dakartzagu honetara, Etxeberri saratarra eta Azkarate tolosarra.



Agustin Etxeberri zapatarari eta olerkari saratarra bereziki ezaguna gertatu zen Abbadiek antolatuta Lore Jokoei esker, izan ere, plazan kantatzen zuen bertsolaria ez baitzen. Estreinako lana Urruñan 1858an egin ziren festetan aurkeztu zuen *Frantzia eta Enperadore* izenburupean, eta aipamen berezia jaso zuen honekin: *Ahuspeka hadi, oi frantses gertaria / Jainkoak eman deraut bitoria / Argitu Krimeko iguzkia / Hire oinetan ezarri du Rusia / Eskuan du garhazia / Bihur zok esker bat handia / Hire banderak harritzen dit mundu guzia / Orotaz miretsia / Agertzen da nola zeruko argia / Ihes harama etsaia / Gure armadak iduri hedoia / Ai haren kuraia / Iragan ditu itsasoa, mendiz, zelhaia / Ikharan eman luraren erdia / Kanta dezagun, Biba Frantzia!*

Saran 1866an ospatu Lore Jokoei bost olerki aurkeztu zituen, *Kirliska eta xinaurria, Urguiluaz, Pobria, Gizon gazte eskualduna eta Andderen xakurra*, baina azken hau baizik ez zioten sariztatu ohorezko aipamen batekin: *Adin gazte-rik anddere xakur bat zen / Etxeko andre on batekin egoten / Bere graziez zion plazer egiten / Tratu ederrez zuen bethi ohoratzen / Haren pare-rik kausitzea pena zen. Sarako 1868ko Lore Jokoei *Etxeko andrea eta Haurra hobi hegian igorri zituen, eta bigarren hau epaimahaikide guztien gustukoa izan bazen ere, forman akatsak zituelako ez zioten saritu. Hurrengo urtean, berriz, lehenbiziko saria eskuratu zuen bere *Hiltzera doan haur baten ahuenak, nahiz Vinsonen aburuz askozaz ere hobea zen Ezpeletako Gibertek onduriko Andregeia: Zeruan ote nintzen ala ametsetan? / Haur eder hek zer ziren ene aitazinean? / Xuriz guziak bezi guziak xingola / Gan behar eta banintz hek diren bezala.***

Jarraitu zuen Etxeberri

sariketara olerkiak bidaltzen, alabaina beti ez zioten saritu: 1872koa da *Amaizuna*; 1874koa *Kattalin-xume*, eta 1878koa *Larrungo mendia eta Hartza eta kakamarloa*. Esan behar da 1874ko sariketa arras polemikoa gertatu zela; Gilbeau medikuaren hitzetan Etxeberriren lana hobereena zen, ordea, ezezaguna erabat agitzen zen epaimahaiak M.A.E. akrostikoaren azpian ezkutatzen zen bizkaitar baten *Jaungoikoa ta errija* olerkia izendatu zuen garaile. Donostian 1880an *Txorien besta* eta ber urtean *Beran* egin zirentan, berriz, bigarren saria eskuratu zuen *Deserturra* lanarekin: *Biziaren primaderan armetara joaitea / Zorigaitzik dorpheena zitzautan jasaitea / Desertatuz uste nuen hobeki izaitea / Pentsamendu zoroa hik egin naukan kaltea*. Urte berean Mauleko ospakizunetan aipamen berezia egin zioten bere *Arotxaren khantuarrentzat* olerkiari, baina 1885eko festetan, *Maria alegiazkoa* olerkia aurkeztu zutenean, lanen maila apala zela eta ez zen saririk banatu; Etxeberriren lana Duvoisini bereziki nazkagarria iruditu zitzaion. Urrietako 1886ko festetan aurkeztu zuen bere azken lana, *Laboraria eta haren semeak*. Hitz lauz ere zer edo zer idatzi zuen Etxeberri, esaterako 1876ko Lore Jokoei aurkeztu zuen *Laminak* izenburuko ipuina, berriki Xabier Kaltzakortak argitara eman duena. Agustin Etxeberri 1890ean zendu zen Saran, Schuchardten beraren

euskara irakaslea izan eta ondorengo euskal belaunaldiei hamaika olerki lan opari eman ostean.

2. Ramos Azkarate Otaegi Tolosan jaio zen, 1847ko martxoaren 28an, eta hantxe zendu zen, 1904ko maiatzaren 26an. Zapataria lanbidez, liberala izan zen lehenbizi eta karlista geroago, orduko eskaintza politikoetan gehiegi sinesen ez zuelako seinale. Aparteko bertsolaria izan genuen, antzerkigile eta kazetari txikia, eta Tolosako bizitza publikoan guztiz sartuta, berebiziko eragile kulturala gertatu zen. Kantatu zituen bertsoak ezagunenak zein orduko zenbait argitalpenetan atera zirenak (*Euskal Erria, Ibaizabal, Euskalerrria, Baserritarra...*) Antonio Zabalak bildu eta argitara eman zituen *Auspoa* bildumaren zazpigarren alekian, tartean *Galtzaundi* famatua dagoela: *Neri deritzait Galtzaundi / Apellidua det Goñi / Aldasoro izen goitiya / Deitzen dirate neroni / Iltzerikan ez nuben / Lenago pensatzen / Baniñan oraingotikan / Ez naiz eskapatzen / Testamentu egitera / Nua ni lenbailen / Nere parientiak / Lasatu ditezen.*

Bi izan ziren Azkaratek izkiriari zituen antzezlanak, biak Tolosan 1885ean taulararuta, *Beotibarko jazarra* eta *Jituen kontratuba eta ezkontza*. Bigarren honekin ez bide ziren gehiegi laketu ijito tolosarrak, eta gogotik egurtu zuten Azkarate koitadua haiekin berriz ere sar ez zedin. Bestalde, idazteaz aparte paperen bat ere jokatu zuen, esaterako *Soroaren Alkate berriya* antzezpenean 1895ean. Kazetetan eginiko lana *El Correo de Guipúzcoa* eta bereziki *El Cantabro* egunkarietan azaldu zen, komunzki gai politikoak jorragai, eta behin baino gehiagotan idatzitakoaren eite satirikoak epailearen aurrera eramanean; honen lekuko 1897an Tolosan erretore zegoen Patrizio Orkaiztegiarekin izaniko ika-mika.



etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo



Etziko kontuak atzo

BEREN DIRUKONTU filantropikoaren ariora, numero bat gehiago bihurtu egin zutela ohartu bezain pronto, euskal letretatik desterratu zuten nere gutzitiko misantropo hark hala zioen: Fueron los presocráticos quienes inventaron la civilización al intuir que la realidad numerable se podría oponer con éxito a cualquier otra.

Baina, ez hori bakarrik, gehiago ere esaten du: Más tarde, con la invención de la escolástica, se da un paso más, y la deducción es declarada monopolio de la autoridad. Ésa es el acta de nacimiento del estado moderno. La prestación principal de la escolástica es la reunión de toda la realidad, presente, pasada y futura, en summas construidas numérica y arquitectónicamente. Todo lo que queda en el exterior es irreal. El juez, y sólo él, demuestra y mensura lo que sucedió; el legislador, y sólo él, demuestra y establece lo que deberá suceder. Todos los miembros de la república han de vivir dentro de la realidad así deducida. Los índices de precios, los números de opinión pública, la pelota vasca, la termodinámica, el nivel de vida, los muertos en el retorno...

Esan nahi baita, Estatu arrazoia etzi indarberrituko dela botoak eta abstentzioak kontatuz. Ikaratzekoa da honek guziak guregan duen eragin erabatekoa. Zibilizazio osoa numero hutsetara antzutu! Hona zertara iritsi den giza jakintza guzia. Eta are gorriago dena: jende guziak, intelektual eta filosofo katedradunak eta itsuen, jakina, gizatasunaren oinarri etiko ukaezinak derrior bide honetatik segi beharko duela pentsatzea!

Irrigarria zinetan. Egungo gizaerak, zifra, datu, data, ordu, prezio, portzentaia, produktzio, eta kontsumo indize, kotizazio, balantze, inkesta, bozketa, kode sekretu, matri-

kula, kontu korronte, telefono, fax, internet, numero sekretu, txip edo bere nortasun agiria bera lekuko, numeroen armiarma sarean galdutako eulibeltz errukarria dirudi.

Munduko sorkari guziengana iristeko, abstrazio numerikoa beste armarik gabe gelditu gara azkenean. Ez al da irrigarri, inguruko gauzen ederra bizitzeko eta sentitzeko giza gogoak dituen aukera zoragarri guziak abstrazio hutseraino agortu izana?

Numerologiaren aldi bakoitzak, garatu eta ugaldu ahalean bere numero sakratuak sortu ditu: bata, hirua, bosta, zazpia, bederatzia, hamarra, hamabia... Eta zein da gaurko numero sakratua? Egiten zidan galde gaur zortzi Mertzek?

Zeroa, hutsa... Hutsetik hutserakoa izandu da numerologiak ekarri digun agortea. Begira nola irudikatzen ditugun egungo numero sakratuak: ehunekoak, milakoak, milioiak, bilioiak: 1%, 1.000, 1.000.000.000.000... Zer adierazten du horrek? Zeroa zero ondokit... Hutsa hutsaren gainean, hutsa hutsaren ondokit. Zibilizazioak, bere abstrazio numerikorako joera itsuan, hutsa jo duela, alegia.

Letraz eta numeroz, munduko izatea ordezkatu du gizonak, horixe da kultura. Munduko sorkarien zinezko izatera ezin iritsi denez, sorkari bakoitzaren ordezkorik ximpleenak, eta erabilgarrienak sortu ditu: izenak, numeroak... munduko errealtatea tasatu eta bere gisara erabilitzeko.

Baina putzu bati edo harri bati, liluraz begira dagoen inozentarentzat, ez dira deus putzu, harri edo bat hitzak; eta horrexegatik da bere atsegina, deustara ere abstraitu ezinezkoa.

Hor konpon zuen boto eta abstentzioekin, ni inozentziak bizi nau, desarrazoitze lan eder honek, entenitzen?

Ziria

• Motxorrosolo •

Gehiengotik hurbil

INOIZ BAINO ZENTRATUAGOA DABILEN EGUNKARIAK, gehiengoa erdiestearen mamua piztu nahi izan du. Igandekoak anteron txaparlotiarena ekar diezaguke. Ekarri edota berretsi. Azken aste honetan jazo direnak, berriak ez izanik ere, harrotasunetik haratago baitoaz.

Maria Jose Sagues

Nafarroako Antzerki Eskolako Administrazio Zuzendaria

«Teatroa ez da bizimodu txarrekoen jarduera»



JOXE LACALLE

Nafarroako Antzerki Eskola sortu zenetik ari da bertan lanean, eta sortu zenetik ari dira bertako ikasketen ofizializazioa eskatzen. Duela bi aste Nafarroako Parlamentuaren aurrean eskakizuna egin zuten berriro ere. Maria Jose Sagues baikor dago, itxaropentsu, ikasketen ofizializazioa behingoz lortuko dutelakoan.

■ Nafarroako Antzerki Eskola noiztik ari da ikasketen ofizializazioa eskatzen?

Eskola sortu zenetik ia, 1985etik. Hasieran arratsaldez ziren ikasketak, baina gero goizez jarri genituen, eta irakasgai gehiago ematen hasi ginen, eta apurka-apurka hazi gara. Orain, LOGSEk eskatzen duena betetzen ari gara; legea betetzen dugu. Leku egokia besterik ez zaigu falta. Principe de Viana instituzioarekin eta Kultura departamentuarekin oso harreman ona izan dugu beti, baina Hezkuntza departamentuarekin ez. Nafarroa oso txikia dela eta Arte Dramatikoen Goi Eskola izateak ez duela interesik esaten digute. Nire ustez, arazoa politikoa izan da beti. Oraingoan ikasketen ofizializazioa, Nafarroako urteroko aurrekontuetan aurrekontu sail bat izateko eta azpiegitura hobetzeko laguntza eskatu ditugu; UPNk izan ezik, talde guztiek eskaera betetzeko konpromisoa hartu zuten; UPNk aztertu beharko zuela esan zigun.

■ Konpromisoa benetakoa dela uste al duzu?

Baietz uste dut. Parlamentuan benetako konpromisoa hartu zuten, alderdi bezala eta banan-banan ere. Ez dakit oposizioak mozioa aurkeztuko duen edo alderdiak banaka ariko ote diren, baina eskakizunak aurrera egingen duela uste dut.

■ Orain arte zein egoeratan izan da eskola?

Egia esan, hemendik ateratakoek gauza asko egiten dituzte. Nafarroan zenbait antzerki talde sortu dituzte, eta lanean ari dira; beste batzuk Madril edo Bartzelonara joan dira, beste espezializazio bat egitera; beste batzuk Espainiako konpainia nazionaletan ari dira. Oraintxe Teatro Klasiko Konpainia nazionalen ari dira lanean hemengo bi ikasle. Interpretazioan lan egiteko, tituluak ez du ezer aldatzen, zuzendariak ez baitute tituluak eskatzen; rola ongi betetzeko baizik. Haatik, oso garrantzitsua da; ofizializa-

ziorik gabe ikasleek ezin dituzte bekak jaso, eta zailagoa dute ikasketak egitea. Gainera, ikasketak bukatu ondoren ezin dute edozein lanpostutarako oposiziorik egin.

«Teatroan nor bere buruari buruz ari da beti, eta horrek harreman berezi eta estuak sortzen ditu; Nafarroako Antzerki Eskolako ikasleen artean harremana berezia izaten da beti»

■ Eskakizunek aurrera egitekotan, nola aldatuko litzateke Eskolaren egoera?

Ikasketak berdina edo antzekoak lirateke, baina gure lana duintasun handiagoz egingen genuke batez ere. Gure helburua Goi Mailako eskola egitea da, lizentziatura. Baina ez dugu erabateko aldaketa eskatzen; hasteko, ziklo formatiboak egiten ahal ditugu, apurka-apurka. Egoera ez da bidezkoa; hemen hi-

ru unibertsitate daude, eta hori oso ongi dago, baina Antzerki Eskola, zergatik ez?

■ Zergatik ez dute, bada, onartu?

Hemen ez dago kultur eta hezkuntza planteamendu argirik, eta horregatik ez dute oraindik Eskola onartu. Gainera, teatroa beti *bizimodu txarreko* pertsonen egiten dutela uste izan da, eta askok oraindik ere horrela uste du. Gure ikasleek askotan esan izan digute euren gurasoek ez dutela onartzen arte dramatikoa ikastea. Uste hori errotik

aldatu behar da. Onarpen ofiziala emanda, gizarteak ere errazago onartuko du. Edozein ikasketaren duintasun bera du Arte Dramatikoa ikastea.

■ Zuk NUPeko antzerki taldea zuzentzen duzu, ezberdintasun handia dago hango eta Eskolako ikasleen artean?

Bai. Eskolako ikasleek aktore izan nahi dute, eta argi dute; formazio handiagoa behar dute. Baina bai batekoek

baita besteek ere ikasteko gogo handia dute. Eskolako ikasleen artean antzerkiarekiko krisi handiagoak izaten dira, hartzen duten konpromisoa handiagoa delako. Nafarroako Antzerki Eskolako ikasketak bukatzen dituztenek normalean antzerkian jarraitzen dute beti lanean.

■ Zein egoeratan dago antzerkia Nafarroan?

Aretoei dagokienez, Iruñean gurea eta Gaiarre besterik ez ditugu, eta hemengo taldeak oso gutxitan aritzen dira Gaiarren. Hemen antzerkirik egiten ez dela uste du jendeak, Nafarroako taldeek hemen antzezten ez dutelako. Baina kanpoan askotan ibiltzen dira. Hemengo taldeek oso maila ona dute, eta onarpen handiagoa dute kanpoan hemen baino.

■ Eta publikoari dagokionez?

Pixkanaka sortzen ari dela uste dut. Hasieran ikusle baino antzezte gehiago izan ziren. Baina orain normalean sarre-bera du Arte Dramatikoa ikastea. Gaiarren ere gero eta ikusle gehiago daude. Beste areto bat zabaltzen badute ere, beteko da. Gainera, Eskolan, ekartzen ditugun obrak direla-eta, oso publiko gaztea dugu, eta hori oso ona da; jende horrek laketu eta jarraitzen du.

→ Miren Iriarte



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Hausnarketa eguna

Hauteskunde kanpaina gaur gauerdian amaituko da. Biharko eguna hausnarketa sakona egiteko gorde digute eta igandean gurea izanen omen da hitza eta erabakia. Horrelakoa da demokrazia. Beraz, larunbatean hainbat kezka argitzen saiatuko naiz.

Senaturako zerrenda laranja ikusi ondoren, gogoeta hauek datozkit burura: Zenbat kidek osatzen dute Comunion Tradicionalista Carlista alderdia? Zer alde dago Falange Española Independiente eta La Falange-ren artean? Centro Democrático Y Social alderdiko zerrendaburu Mario Condek hauteskundeak irabaziz gero, Ruiz Mateos eta Gil y Gil ministro izendatuko ote ditu? Europako beste zenbait bazterretan bezala naziek zergatik ez dute euren burua aurkezten deialdi honetara? Agian eskuina eta eskuin muturra PPartido berean daudelako izanen da. Zenbat boto jaso zituen Euskal Karlista Alderdiak azken aldian? Nor dago Partido Humanista-ren atzean? Zergatik aurkezten du Nafarroan Unión Valenciana alderdiak hautagai zerrenda? Zein da Lucha Internacionalista koalizioaren programa datozen lau urte hauetarako? Zenbat diru gastatuko du Partido Obrero Socialista Internacionalista-k? Partido de la Ley Natural ez ote da artifiziala? Zenbat urte dituzte Acción Republicana-ko hautagaiek? Partido del Karma Democrático alderdiaren egoitza eliza budista bat al da? Los Verdes koalizioa ez al dago heldu gabe oraindik?

Nire zalantza nagusiak ordea M-13tik aurrera argituko direlakoan nago. Aro berri bat zabalduko ote da ditugun arazo larriak konpontzeko? Elkarrizketaren kultura nagusituko ote da? Presoen auzia arinduko ote da aurrerantzean? Gizartean hausturarik gertatuko al da? ETAK bere ekintza armatuarekin luze jarraituko ote du? Nafarroa igandetik aurrera aurrerako euskaldunagoa izanen ote da? UPNk zenbat boto irabaziko ditu? Noiz osatuko da bakeari buruz hitz egiteko elkargune bat?

gure aukerak

HITZALDIAK

- **Burlata:** Martxoaren 13an, astelehena, *Emakume Poetak* hitzaldia emanen du Maite Perez Larunbek. Emanaldia arratsaldeko 19:30etan izanen da, Burlatako Musika Eskolan.
- **Etzarri-Aranaz:** Ostegunean, *Emakumea eta Euskal Herria* gaiaren inguruan hitzaldia emanen du Alizia Sturtze historialariak, Kultur Etxean, iluntzeko 21:15etan.

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Pablo Sarasate orkestrak kontzertua emanen du gaur Gaiarre antzokian, arratsaldeko 20:00etan. Sarasateren omenezko kontzertua izanen da, eta Sarasate txapelketako irabazlea ariko da kontrabaxua jotzen.

BERTSOLARIAK

- **Tafalla:** Gaur, Zokondo elkartearen, gaueko 21:00etatik aurrera, Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehengo kanporaketa izanen da. Bertan, Sustrai Kolina, Ekintza Landa, Alaitz Rekondo, Iñigo Ibarra, Julen Zelaieta eta Manolo Arozena bertsolariak izanen dira.

ERAKUSKETAK

- **Atarrabia:** Hilaren 6tik 17ra bitartean, Pablo Gil Biskarreten *Emakumea etorkizuna eraikitzen* argazki erakusketa izanen da ikusgai. Kultur Etxean izanen da, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Zizur Nagusiko Kultur Etxean, Angel Arbe Zugastiren arte grafikoaren erakusketa izanen da ikusgai

hilaren 10etik 26ra bitartean, 19:00etatik 21:00etara lanegunetan eta 12:00etatik 14:00etara igande eta jaiegunetan.

- **Tafalla:** Hilaren 14tik 29ra bitartean, Jose Luis Cosme Giralen *Anonimato* izeneko argazki erakusketa izanen da Lagar aretoan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, martxoak 10, Karrikiri elkarteak antolatutako *Zinema euskaraz* zikloaren baitan, *Angus* filma emanen dute. Aurretik, Asier Altuna eta Telmo Esnalen *40 ezetz* film labu-

rra emanen dute. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izanen da, Golem zinematokietan.

- **Tafalla:** *Dogma* zikloan, *Celebración* izeneko filma eskainiko dute martxoaren 14an eta 16an, 20:00etan eta 22:30etan. Cinema Español aretoan izanen da, eta sarrerak 300 pezeta balio du.

Bihar arratsaldeko 18:00etan eta etzi 17:30etan, *El gigante de hierro* haurrentzako filma emanen dute Cinema Españolen.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Arrosadiako jaieta-

rako kartel lehiaketa. Goiburuan ondoko testua jarri beharko da: *Arrosadiako festak, 2000ko ekainaren 2, 3 eta 4an - Fiestas de Arrosadia, 2, 3 y 4 de junio de 2000*. Kartelak gehienez DIN A-3 neurria izan beharko du, eta koloreetan egin behar du. Irabazleak 15.000 pezetako saria jasoko du, bigarrenak 10.000 pezetakoa eta hirugarrenak 5.000 pezetakoa. Kartelak apirilaren 6a baino lehen aurkeztu behar dira *Sorgintze tabernan* (Gelbenzu kalea 35, 31005 Iruñea).

JOXE LACALLE



Txikle zikinik ez

Iruñeko Udaleko politikariek herritarrak gehien kezkatzen dituzten arazo larrienetako bat bukatzeko inbertsioa egin dute. Iragan astean, hauteskunde kanpaina bete-betean, txikleak kentzeko makina trebe eta eraginkorra aurkeztu zuten. Film famatu horretan protagonistek mamuak harrapatzen zituzten modu berean, lurrean itsatsiriko txile zikin guztiak bere egiten ditu argazkian azaltzen den makinak. Aurrerantzean, karriketako ikuskizunak lurrean eserita ikustea atsegin dugunok kezkarik gabe eseri ahal izanen gara. Gure Udalari esker.